

Xabier Mendiguren

Joxe ezagutu nuenekoa

Ugarango tertuliakideei

(Lore eta laudorioak bota ditut lehen ere, eta gaur nahiago oroitzapen bat ekartzea, zuentzat ere jakingarria izango delakoan).

1988ko urte hasieran hasi nintzen editore lanetan Elkar argitaletxean, Aldamar kalearen amaierako bulego estu eta ilun batean. Iritsi nintze-nean, irakurtzeko zegoen original-parrasta bat erakutsi zidaten, eta liburu pare bat: «Horiek berrargitaratzeko daude». Haietako bat *Hai-zeaz bestaldetik* zen, Txillardegiren laugarren nobela, Joxe Azurmendi-ren hitzaurrea zeramana, 1979an Txillardegik berak autoeditatua, eta 1988 hartantxe berrargitaratu genuena. Bestea *Hitz berdeak* zen, zentsurak kendutako atalak berreskuratuta (*Manifestu atzeratua* eta beste) edizio berritu batean atera nahi zena.

Horretaz hitz egiteko bildu nintzen Joxerekin. Ez daukat gogoan ez eguna, ez lekua. Bai, ordea, gizon hark sortu zidan inpresio sakona. Haren adimen aparta izan ote zen? Haren gizatasun paregabea? 23 urteko gaztetxo hari egin zion harrera beroa? Atzera begirako berre-raikitze hauek asmaziorako arrisku handia dute, eta ez nuke halakorik egin nahi. Hortaz, ziur gogoratzen ditudanetara mugatuko naiz.

Joxek ez zuen *Hitz berdeak* berriz atera nahi. Ez nuke ziur esango zergatia: ez ziolako estimu berezirik, poesia-era hori gainditutzat zeukalako, bera bizitzako beste aldi batean zegoelako... Ateratzen tematzen baginen ez zigula debekatuko ulertu nion, baina berak interes apurrik ez. Eta halako batean esan zidan: «Nire zerbait atera nahi baduzue, hor badauzkat paper zahar batzuk, inork argitaratu nahi ezta, alfer-alferrik». Halaxe ez bazen, halatsu.

Gizaberearen bakeak eta gerrak saiakera ziren paper horiek, eta «zahar» izenondoak ere bazuen izateko arrazoia: izan ere, 1975ean Lazkano

Mendizabal izenpean (bere 3. eta 4. deiturak) kaleratutako *Gizona abere hutsa da* liburu durduzagarriaren jarraipena zen, gauza bat dela bestea dela bazterturik gelditu zena, aurrena Jakinen eta gero Ereinen, handik Lontxo Oihartzabalek zapata-kaxa batean erreskatatu zuen arte.

Atera genuen beraz *Gizaberearen bakeak eta gerrak* hura, eta Joxe bera pozik geratu zen, nonbait, halako batean berriro esan baitzidan: «Nire kontu zaharrok ateratzen jarraitzeko interesa baduzue, badaukat beste totxo bat, bere garaian inork argitaratu nahi izan ez zuena, eta geroztik hor nonbait dagoena, hautsa biltzen» (halaxe ez bazen, halatsu, berriz ere).

Hautsa biltzen egondako totxo hura *Espainolak eta euskaldunak* zen. Berori ere, 1975-1976 urte inguru hartan idatzia, beroaldi batean, Venezuelako euskaldunek antolatutako sariketaren batera bidalia, eta gero luzaroan ahaztuta geratu zena, nik ez dakit zergatik, makinaz jotako orri horitu haiek irakurri ahala neure buruari etengabe esaten bainion: «Baina hau... hau egundokoa da, hau atera beharra dago, hau jendeak ezagutu behar du».

Garai hartan (orain ia 35 urte) 500 orriko saiakera bat euskaraz pentsaezina eta ia-ia beldurgarria iruditzen zitzaigun; ni ere nahiko hasiberria nintzen argitaletxean edozein erabaki hartzeko, eta gogoan dut goikoei esan niela: «Liburu honekin seguru asko dirua galduko dugu, baina gure argitaletxeak euskal kulturaren alde egingo badu, bokazio hori baldin badugu, testu hau atera beharra daukagu, derrigorrez».

Garaitsu hartan, Madrilera joan-etorri bat egin nuen batean, Reina Sofía museo inauguratu berrian uste dut ikusi nuela Equipo Crónica-ren irudi bat, El Guerrero del Antifaz heroi espainiarra *Guernica* koadroaren barruan zirti-zarta jartzen duena, eta planetak lerrokaturik zeudela sentitu nuen: «Honexek izan behar du Joxeren libururako azala» pentsatu, eta halaxe egin genuen, garai hartan ohi zen moduan, irudien eskubideen ardurarik eta hartu gabe.

Espainolak eta euskaldunak 1992 hasieran argitaratu zen, eta ez egileak ez argitaletxeak espero ez genuen oihartzuna izan zuen. Baina hori, jada, beste istorio bat da.